

## ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA, 2019ko OTSAILA

# Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak % 5,5 igo dira eta ostatu-gauak % 7,1, 2019ko otsailean

**Euskal AEko hoteletan logela libre bakoitzeko sarrerak % 2,7 igo dira.**

2019ko otsailean bidaiari-sarrerak % 5,5 igo dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2018ko otsailaren aldean, Eustaten datuen arabera; guztira 179.108 sarrera izan dira, 2018ko otsailean baino 9.371 gehiago. Bidaiari-sarrerek lurralde guztietan egin dute gora: Gipuzkoan % 9,9, Bizkaian % 3,5 eta Araban % 1,0.

Bestalde, ostatu-gauak 325.858 izan dira, aurreko urteko otsaileko datuen aldean % 7,1 gehituz; hau da, 21.475 ostatu-gau gehiago. Ostatu-gauak ere urtetik urterako bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan % 7,2, Bizkaian % 7,0 eta Araban % 6,7 hazi dira.

**Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaudiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019ko Otsaila**

|                    | Gaudiak        |            | Bidaiarien sarrerak |            | Batez besteko egonaldia |             | Betetze-maila (%) |            |             |            | Gelatik Errentagarritasuna |                  |
|--------------------|----------------|------------|---------------------|------------|-------------------------|-------------|-------------------|------------|-------------|------------|----------------------------|------------------|
|                    | 2019/02        | m/m-12 (%) | 2019/02             | m/m-12 (%) | 2019/02                 | 2018/02     | plazaka           |            | gelaka      |            | ADR (eurotan)              | RevPar (eurotan) |
|                    |                |            |                     |            |                         |             | 2019/02           | p.p.*      | 2019/02     | p.p.*      |                            |                  |
| <b>EUSKAL AE</b>   | <b>325.858</b> | <b>7,1</b> | <b>179.108</b>      | <b>5,5</b> | <b>1,82</b>             | <b>1,79</b> | <b>42,2</b>       | <b>2,3</b> | <b>54,0</b> | <b>2,8</b> | <b>66,8</b>                | <b>36,1</b>      |
| Estatukoak         | 222.937        | 9,3        | 123.821             | 6,2        | 1,80                    | 1,75        | -                 | -          | -           | -          | -                          | -                |
| Atzeritarrak       | 102.921        | 2,4        | 55.287              | 4,1        | 1,86                    | 1,89        | -                 | -          | -           | -          | -                          | -                |
| <b>ARABA/ÁLAVA</b> | <b>43.679</b>  | <b>6,7</b> | <b>23.407</b>       | <b>1,0</b> | <b>1,87</b>             | <b>1,77</b> | <b>39,8</b>       | <b>4,2</b> | <b>51,8</b> | <b>5,4</b> | <b>57,7</b>                | <b>29,9</b>      |
| Estatukoak         | 34.464         | 0,2        | 19.203              | 0,2        | 1,79                    | 1,80        | -                 | -          | -           | -          | -                          | -                |
| Atzeritarrak       | 9.215          | 41,5       | 4.204               | 5,1        | 2,19                    | 1,63        | -                 | -          | -           | -          | -                          | -                |
| Vitoria-Gasteiz    | 36.309         | 10,9       | 18.602              | 4,4        | 1,95                    | 1,84        | 43,3              | 4,0        | 57,6        | 5,0        | 56,7                       | 32,6             |
| <b>BIZKAIA</b>     | <b>162.136</b> | <b>7,0</b> | <b>86.033</b>       | <b>3,5</b> | <b>1,88</b>             | <b>1,82</b> | <b>43,9</b>       | <b>3,0</b> | <b>57,6</b> | <b>3,7</b> | <b>69,3</b>                | <b>39,9</b>      |
| Estatukoak         | 111.322        | 12,5       | 60.202              | 6,0        | 1,85                    | 1,74        | -                 | -          | -           | -          | -                          | -                |
| Atzeritarrak       | 50.814         | -3,3       | 25.831              | -1,9       | 1,97                    | 2,00        | -                 | -          | -           | -          | -                          | -                |
| Bilbao             | 105.340        | 4,7        | 57.244              | 2,1        | 1,84                    | 1,79        | 47,7              | 2,1        | 62,2        | 3,5        | 75,2                       | 46,7             |
| <b>GIPUZKOA</b>    | <b>120.043</b> | <b>7,2</b> | <b>69.668</b>       | <b>9,9</b> | <b>1,72</b>             | <b>1,77</b> | <b>41,0</b>       | <b>0,7</b> | <b>50,3</b> | <b>0,7</b> | <b>66,5</b>                | <b>33,5</b>      |
| Estatukoak         | 77.151         | 9,3        | 44.416              | 9,3        | 1,74                    | 1,74        | -                 | -          | -           | -          | -                          | -                |
| Atzeritarrak       | 42.892         | 3,6        | 25.252              | 10,9       | 1,70                    | 1,82        | -                 | -          | -           | -          | -                          | -                |
| Donostia           | 69.996         | 8,2        | 41.968              | 11,8       | 1,67                    | 1,72        | 44,8              | 0,5        | 53,1        | -0,9       | 77,5                       | 41,2             |

p.p.\*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea


**Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta**

Estatutiko bidaiarien sarreren kopurua % 6,2 handitu da Euskal AEn aurreko urteko otsaileko datuen aldean eta atzeritiko bidaiariena, berriz, % 4,1. Araban Estatutik etorritako bidaiariak % 0,2 egin dute gora, eta atzeritik etorritakoak, berriz, % 5,1. Bizkaian Estatutik etorritako bidaiariak % 6,0 egin dute gora eta atzeritik etorritako bidaiariak %1,9 jaitsi dira. Gipuzkoan Estatutik etorritako bidaiariak % 9,3 egin dute gora eta atzeritik etorritakoak % 10,9.

Batez besteko egonaldia, otsailean, 1,82 egunekoa izan zen, 2018ko otsailean batez beste izan zen 1,79 eguneko marka hobetuz. Araban iazko otsailean batez beste eman zen 1,77 egunetik aurtengo otsaileko 1,87ra igo da; Bizkaian 2018ko otsailean erregistratu zen 1,82 egunetik 1,88ra luzatu da; azkenik, Gipuzkoan iazko otsailean eman zen 1,77 egunetik aurtengo otsailean 1,72 egunera murriztu da.

Plazakako okupazio-mailari dagokionez, ehuneko 2,3 puntu handitu da Euskal AE osoan; aurtengo otsailean, plazakako okupazio-maila %42,2ra iritsiz. Araban ehuneko 4,2 puntu igo da, eta otsailean % 39,8ko okupazio-mailara iritsi dira. Bizkaian ehuneko 3,0 puntu igo da, eta otsailean % 43,9ko okupazio mailara iritsi dira. Gipuzkoan okupazio-maila ehuneko 0,7 igo da. Otsailean % 41,0ko okupazioa izatera iritsi dira.

### Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Gelakako okupazio-mailak ere bilakaera positiboa eduki du Euskal AE osoan, ehuneko 2,8 puntu igo baita; hala, gelen okupazio-maila % 54,0ra iritsi da. Araban ehuneko 5,4 puntu igo da, % 51,8n kokatuz; Bizkaian ehuneko 3,7 puntu igo da, % 57,6n kokatuz; eta Gipuzkoan ehuneko 0,7 puntu, gela bakoitzeko % 50,3ko okupazioa izatera helduz.

Otsailean plazen arabera hotel-okupazio kopuru handiena Bilbon (% 47,7) eman da, ondoren Bizkaiko kostaldean (% 46,7) eta Donostian (% 44,8).

Asteko eguna aintzat hartuta, 2019ko otsailean, Euskal AE osoan, okupaziorik handiena asteburutan gertatu da % 54,0ko okupazioarekin; lanegunetan % 37,4ko okupazioa erregistratu da.

Azkenik, **sektorearen errentagarritasun-adierazleei** dagokienez, eguneko batez besteko tarifa (ADR) 66,8 eurokoa izan da Euskal AEko hoteletan 2019ko otsailean, aurreko urtean baino % 2,6 gutxiago. Batez besteko tarifa 57,7 eurokoa izan da Araban, % 9,7 jaitsiz; 69,3 eurokoa Bizkaian, % 0,5 igoz; eta 66,5 eurokoa Gipuzkoan, % 4,5 jaitsiz.

Hotel-establezimenduen okupazio-mailaren mende dauden gela eskuragarriko sarrerak (RevPar) 36,1 eurokoak izan dira 2019ko otsailean Euskal AEn, 2018ko otsailean baino % 2,7 gehiago. Araban RevPar 29,9 eurokoa izan zen, Bizkaian 39,9 eurokoa eta Gipuzkoan 33,5 eurokoa.

### **Landa-ostatueta bidaia-ien sarrera % 3,4 murriztu da eta ostatu-gauak % 7,8 igo dira 2019ko otsailean**

Euskal AEko landa-ostatueta 6.160 bidaia-ier-sarrera erregistratu dira, aurreko urteko hil beraren aldean % 3,4 gehiago. Lurraldeka, Araban % 1,0 egin du gora bidaia-ier-sarreraren kopuruak, Bizkaian % 8,9 jaitsi da eta Gipuzkoan % 10,3 egin du gora.

Atzeritik etorritako pertsonen 774 sarrera eman dira; beraz, duela urtebete etorritakoen kopuruarekin alderatuta % 16,0 handitu da, eta sarrera guztien % 12,6 dira. Bestalde, Estatutik etorritakoen sarrera % 1,8 handitu da.

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan eta landetxetan otsailean 13.639 ostatu-gau erregistratu dira guztira; aurreko urteko otsaileko datuekin alderatuta % 7,8 igo da kopuru hori. Lurraldeka, Araban % 1,4 jaitsi da, baina Gipuzkoan % 7,2 eta Bizkaian % 14,9 igo da.

Plazakako betetze-maila % 13,9a iritsi da, ehuneko 1,6 puntu igoz 2018ko otsailean lortutako zifren aldean. Araban ehuneko 0,4 puntu igo da, % 9,5era helduz. Bizkaian okupazio-maila % 13,9koa da —2018ko otsaileko datuekin alderatuta 2,6 puntu gehiago—, eta Gipuzkoan ehuneko 1,4 puntu hazi da, otsailean % 16,2ko okupazio-mailara helduz.

Azkenik, batez besteko egonaldia handitu egin da, azken hilabete honetan 2,12tik 2,21era pasatuz.

### **Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaia-ien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019ko Otsaila**

|                  | Gaualdiak     |            | Bidaia-ien sarrerak |            | Batez besteko egonaldia |             | Plazakako betetze-maila (%) |            |
|------------------|---------------|------------|---------------------|------------|-------------------------|-------------|-----------------------------|------------|
|                  | 2019/02       | m/m-12 (%) | 2019/02             | m/m-12 (%) | 2019/02                 | 2018/02     | 2019/02                     | p.p.*      |
| <b>EUSKAL AE</b> | <b>13.639</b> | <b>7,8</b> | <b>6.160</b>        | <b>3,4</b> | <b>2,21</b>             | <b>2,12</b> | <b>13,9</b>                 | <b>1,6</b> |
| Araba/Álava      | 2.193         | -1,4       | 1.109               | 1,0        | 1,98                    | 2,03        | 9,5                         | 0,4        |
| Bizkaia          | 4.055         | 14,9       | 1.482               | -8,9       | 2,74                    | 2,17        | 13,9                        | 2,6        |
| Gipuzkoa         | 7.391         | 7,2        | 3.569               | 10,3       | 2,07                    | 2,13        | 16,2                        | 1,4        |

p.p.\*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentaje-zko puntuko aldea

**Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta**

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62